

2. MAHASGINTZA BOLETINA / 2021-eKO MAIATZA. IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK

- **Internet bidezko asteroko oharra :**
http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU
- **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharra (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 944066879**
- **Mahasgintza eta enologia boletina**
- **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinaren lehen orbanaren topaketa, txingorra...)**

Produktu fitosanitario **Erregistroan izandako aldaketa batzuk:**

Mankozeba erregistroa galduko dau 2021 ean. Ekainak 2021erako Europako Estatuak erregistrotik kanpo itxi behar dabe. Etoxazolaren (Borneo/Doryoku) saltzeko epe muga 2021/04/29 deko eta erabiltzeko epe muga 2021/07/29. Envidor (spirodiclofen) eta Calypso SC erregistrotik kanpo geratu dira ta metil tiofanato dalakoak (Topsin, Cercobin) 2021ean erregistroa galduko dau.

ADI, onddoak **fitosanitarioarekiko erresistentziak** sortuta izan lekiez. 2020an 4 mahats landaketatik hartutako laginak mildiua fitosanitarioarekiko erresistentziak sortuak izan lekiezan aztertu da. Aztertutako gai eragindarriak metalaxil, fluopikolida ta dimetomorf dira ta emaitzen arabera erresistentziak badira. Kontutan izan produktu hauek erresistentzi gurutzatuak dekizela FRAC kode bardina dekien beste gai eragingarri batzukaz:

-Dimetomorf, Karboxiliko Azidoen Amiden familikoa, 40 FRAC kodea. Famili honetako beste gaiak: mandipropamida, bentiabalicarb, iprobalicarb eta balifenalato.

-Metalaxil, fenilamiden familikoa, 4 FRAC kodea. Famili honetako beste gaiak: benalaxil-M, metalaxil-M eta benalaxil.

-Fluopikolida, benzamiden familikoa, 43 FRAC kodea. Kode honegaz gai eragingarri bakarra.

Oraingo egoera fenologikoetan kontutan hartu beharko dira honako patogeno hauek:

GORRINA: maiatzak 16an **mahats gorrinaren lehenengo olio-motak** ikusi dira Gueñes ta Okendon(Araba). Olio mota hauek esporulazioa agirian eukien. Maiatzak 18an Bakion ikusi dira baina esporulazio barik. Holan dala, maiatzak 21ean gauzela, ta dogun eguraldia be kontutan izanik, euria ta tenperatura epelak une honetan arriskua oso handia dogu.

Kontrola: **garai honetan eta lora aletu arte** gaixoaren bilakaerarako kondizio aproposak espero badira komeni da landaketak produktu sistemikokaz babestuta eukitea kimuak oso azkar hasten direlako. Erabili 2020ko Tratamendu Gidako **M1 taldeko fungizida sistemikoak**. Produktu hauek eraginkortasun handia dute, baina onddoak erresistentziak sortzeko erraztasun handia du, eta horregatik famili kimiko desbardinatuko gai eragingarriak txandakatu egin behar dira.

Produktu sistemiko hauek 2-4 egunetan onddoa gelditzeko edo “stop” izateko gaitasuna dute behin infekzioa gauzatu dala. Produktu hauek prebentiboki erabiltzen badira beraien eraginkortasuna altuagoa izan daiteke. Euren persistentzia 12 egun ingurukoa da baina gaixotasunaren presioa oso altua eta landarearen hazkundera oso handia bada tratamenduen arteko tarte 2 egunetan murriztu beharko da, hau da 10 egun.

Landarearen organuak ondo busti beharko dira makineria egokia eta ondo kalibratua erabiliz.

BOTRITISA: loraketa-aletze inguruan, (I-J egoera fenologikoak) –normalean ekaineko lehenengo hamobostaldian-, eta bereziki eurak edota humedade altuko kondizioak espero badira, mordoak babestu beharko dira. Erabili 2021eko Tratamendu Gidako **B taldeko botritisaren kontrako fungizidak**.

OIDIOA: bariedade sentikorretan edota beste urte batzuetan kalteak handiak izan badira, apirileko mahats boletinean F egoera fenologikoan lehenengo tratamendua emotea gomendatu deutsuegu. Hasiara batean, hurrengo tratamendua **loraketa sasoi**an gomendatuko dogu, horretarako 2021eko Tratamendu Gidako **O taldeko oidioaren kontrako fungizidak erabiliz**.

MORDOAREN SITSA: gure mahastietan ez dago arazo handirik insekto honegaz orokorrean ta sasoi honetan askoz be gitxiago ondino ez dogu mordorik eta.

LANDAKETA LANAK. **Udako kimaketa:** “hijueloak” kentzea, adar zupatzaileak kentzea eta kimen bakanketa.